


BERA BERA BASERRIA
C MAILA

BERABERA PASEALEKUA 82



Egile eta data ezezagunak.

Deskribapena

Baserriak behe oina, lehen oina eta estalkipeko oina ditu; halaber, harlangaitz horma pintatuz eraikitako fatxadak ditu, baita fatxada nagusia ere. Zurezko jabaloiak dituen bi estalkietako baten plano makurtua behe oineraino heltzen da, ziri-harriz eginiko arku puntaduneko sarrera babestuz. Halaber, behe oineko eta lehen oineko azpaduretan harlanduak agertzen dira.

Babes erregimena.

- 1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.
- 2.- Berariazko erregimena.
 - A.- Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: ez.
 - B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.
 - C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: jasodurak ez dira onartzen.
 - D.- Nahitaezko lehengoratzak: ez.